



Astekaria



elgoi



Askatasunarekin ametsetan

**SEGURITATEA
PREZIORIK
ONENEAN**

**Migel Angel Canales
Zabaleta**

Orain ZUZENBIDE BERRI honetan gaude

P. M. Urruzuno, 31 - Tel.-Faxa: 74 28 64 - ELGOIBAR



ZEZENBIDE

auto-eskola



IRAKASLE

ELKARTEA



Aprobetxatu udaldia
GIDA BAIMENA
ateratzeko

Izena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin

San Frantzisko, 43
☎ 74 27 20 • ELGOIBAR

❖ Zubia jatetxea ❖

Berezitasunak : Arraina eta haragia erreta eta bildotsa

- ❖ EZKONTZAK
- ❖ BATAIOAK
- ❖ JAUNARTZEAK
- ❖ DESPEDIDAK
- ❖ EGUNEROKO MENUAK
- ❖ BILERETARAKO MENU BEREZIAK
- ❖ ETAB.



*Ondo pasa Altzolako
San Juan Jaiak!*

Bainuetxe zumardia, 2- Tel. 74 05 13. ALTZOLA-ELGOIBAR

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.700 ale


LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa funtzionala
Fundación Kutxa



Jakinduria zaharra garai berrietarako

Ekainean gaude. Udako ateetan. Ikasurte amaierako azterketek, ebaluaketek eta selektibitateak gure gazte eta gaztetxoak estu eta urduri jartzen dituen hilabete gaiztoan. Izan ere, ekaineko zurrumbilo honen zergatia honetan legoke: gure gazte hauek behar adinako jakite maila akademikorik lortu duten ala ez ezagutzean. Baina ni ez noa alor horretara. Aitzitik, beste era bateko jakitea eta jakinduria gogoratzera jo nahi dut gaurkoan.

Orain bi urte, euskarazko liburu eder bat eman zen argitara. Idazlan hori 73 liburu eta liburuskek osatzen dute. Gaur egun beste 2.123 hizkuntzatarata itzulia dago. Afrikan 601 hizkuntzatan aurki daitezke. Asian 527tan. Ameriketara 466tan eta 355etan Ozeanian. Azkenik, euskara barne, 191 hizkuntzatan argitara ikus dezakezu Europan. Bibliaz ari natzaizu.

Gutenberg-ek bere inprimategian inprimatu zuen lehen liburua dugu Biblia. Gaur egun, ordea, paperezko formatoa baztertu gabe, beste euskarri teknologikoe-tan ere eskaintzen zaigu, hala nola, kasetean, bideoan, konpaktoan, diskettean eta CD Rom-ean.

Biblia osatzen duten 73 liburu horien artean, bada bat guztiz berezia. Gehienontzat ia ezezaguna. Euskal Biblian hamaika orrialde hartzen ditu eta hamabi ataletan sailkatua dago. Kohelet liburua da. Eguneroko bizitzak sortzen duen jakinduriaz, sekzio honetako lagun batek dioen bezala "bizitzako unibertsitatean" ikasten den

jakinduariari buruz mintzo zaigu, duela 2.200 urte bizi izan zen gizon hau.

"Zertarako du gizakiak / lur honetan leher egitea? / Belaunaldiak joan, belaunaldiak etorri, / munduak mundu dirau." dio zuhurtasunez antzinako idazleak bere lanaren lehen pasarteetako batean.

Gogoetaren hariari jarraituz bere bizitzako esperientzia hitz hauetan biltzen du:

"Denak du bere sasoia, gauza bakoitzak bere garaia du: eguzkipean:

jaiotzeko garaia

eta hiltzeko garaia,

landatzeko garaia

eta landarea ateratzeko garaia

...urratzeko garaia

eta josteko garaia

isiltzeko garaia

eta mintzatzeko garaia

maitatzeko garaia eta gorrotatzeko garaia


gudarako garaia

eta bakerako garaia."

Berrogeita hamar urtetik gora abiatu bazara bizitzako aldapa gogorrean, eta bizitzako liburitik ikasi nahi baduzu, egiozu ikustaldi bat hebraiar idazle honi aurtengo udan. Agian, ez dizu zure buruhausteentzako erremediorik emango. Agian ez dizkizu arazoak konponduko. Baina ziur nago, bai zuri bai niri, bai eta pertsona askori ere, egiten ari garen bizitzako ibilaldi honen nondik-norakoa argitzen lagunduko digula. Eta, ez da gutxi, gaur egun!

Benantzio Otaegi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



? GALDERAK

Leku-Ederren garajea duen lagun batek galdera hau luzatu digu: **Zergatik ez du Udalak gure garaje atean dagoen pintada garbitzen?** Udalarekin egon gara eta bertatik esan digutenez garbiketako langileek ikusi ez dutelako izan da. Las-ter kenduko dutela agindu digute.

KEXAK

“Trinitate jaietako domekan, garbitzaileek P. Muguruza eta Madala garbitu zituzten. Baina, **zergatik ez zuten gauza bera egin Ermuarenbide kalean?** Hau ere zikin-zikina zegoen. 1. eta 2. mailako kaleak eta herritarrek al daude Elgoibarren?”

“Udal Liburutegitik **“Euskal Herriko Zuhaitzak”** etxera eraman duenari mesedez eskatzen diot bere tokian laga dezala. Lan bat egiten ari naiz eta derrigorrez behar dut”.

TXALOAK

San Rokeko emakume batek **Banden Alardea** txalotu nahi du. Gainera, oso ideia ona iruditzen zaio urtean behin behintzat, musika bandak auzoetan zehar ere ibiltzea.

Emakume batek Polikiroldegian izan zen **Dantza jaialdia** zoragarria izan zela esateko deitu digu. Jende asko izan zen bertan eta berak bai partehartzaileak bai eta antolatzaileak ere txalotu nahi ditu.

ESKUTITZAK

(153. zkia.n agertutako idatziari erantzunez)

Nahiz eta PNVk 5 edo 10 diputatu izan Madrilen, Espainiak irabazten du

PNVk eta PPK proiektu politiko berbera defendatzen baitute: Espainia autonomiko bat, hau da, Espainia nazio bat da eta gure Herria, komunitate autonomo bat da.

Orain dela 16 urte, Autonomi Estatutua onartu zen Euskal Autonomi Elkarteko biztanlegoarentzat; Nafarroa kanpoan gelditu eta Iparraldearekiko etena areagotu egin zen.

Madrilek diseinatutako politika Gasteizko Gobernuak gestionatzea da Estatutuaren mamia. Madrilek erabakitzen du non, noiz eta nola inbertitu edo suntsitu, eta Ardanzen Gobernuak gustuz onartzen ditu Espainiako Gobernuak agintzen dizkion planak.

Gasteizko Gobernuak erabakitze gaitasunik ez badu, 1.000, 20.000 edo 100.000 milioi gestionatzea zero pta. gestionatzea bezala da. Desberdintasun bakarria PNVk diru hori behar izatea da, bere bezero eta karguak mantentzeko.

Bestalde, nortzuk dira PPkoak? Denok ezagutzen

ditugu Fraga, Martin Villa, Marcelino Oreja eta gainontzeko PPkideak. Hauek dira nafar errepublikarrak eta 36ko gudariak hil zituztenak, Gernika bonbaz suntsitu zutenak, Txiki eta Otaegi fusilatu zituztenak, “Triple A” eta “Batallón Vasco Español” (BVE), gerra zikinaren sortzaileak. Hauek dira beraien iragan eta jatorri fazistari uko egin ez diotenak.

Atzo PSOerekin, gaur PPrekin, baina 5 edo 10 diputatu izan arren, hitzarmen honen bitartez PNVk lortu nahi duen gauza bakarria Espainiaren nazionalitatea finkatzea da. Ardanzak arrazoiz hitz egiten du “Este pacto es bueno para España” baieztatzen duenean.

Baina honek ez gaitu harritzen, Santoñako traiziotik gaurdaino PNVk bere Herria beti saldu baitu. Eta Herri honek badu bere etorkizuna eraikitzeko proiektua: Alternatiba Demokratikoa. Eta gogoratu egin behar dugu Alternatiba hori ez dela ETarena edo Ezker Abertzalearena, Herri guztiarena baizik, azken hitza herri guztiak duelako, eta Alternatiba honek planteatzen duena eskakizun minimoak eta demokratikoak direlako.

Elgoibarko Herri Batasuna

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Jesusa Basarrik** lagatakoa da. Berak esan digunaren arabera 1940. urtearen bueltakoa da. Erretratuan azaltzen den familia Itziarkoa da. Itxura denez, gerra aurrean Itziar-tik Elgoibarrera etorri zen sendi osoa, San Pedro auzoan dagoen Sagar-Zubieta baserrira. Gaur egun ez da inor bizi bertan.

Ikus dezagun zeinek osatzen zuten **Lazkano-Aizpurua** sendia:

Ezkerretik hasita, atze aldean: **Manuel Lazkano**, **Martzelino Lazkano** (†), **Faustino Lazkano**, **Karmen Lazkano**, **Jose Lazkano** (†) eta **Bixente Lazkano**.

Aurrean, **Genaro Lazkano** (†), **Anastasia Aizpurua** (ama) (†), **Iñaki Lazkano** (†), **Domingo Lazkano** (aita) (†) eta **Pako Lazkano**.

 **Goki Erreformat, S.L.**
DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

 **ARRAQUETA**
AZTERKETA ZENTRUA
ZIURTAGIRI MEDIKUAK
GIDA KARNETAK ETA ARMA BAIMENAK

ORDUTEGIA
· GOIZEZ:
Astelehena eta
asteazkena 10,30-12,30
· ARRATSALDEZ:
Astelehenetik ostiralera
4,30-7,30


Arraqueta kalea, 2 bis. A (Hazienda ondoan eta ONCE parean) - Tel. 700 700 - EIBAR

KAROBI
PUB



ELGOIBAR

Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37



Mikel Alberdik 37 urte zituen atxilotu zutenean. Gaur egun 49 urte ditu eta Cordobako gartzelan dago.



Inazio Iriondo 27 urterekin atxilotu zuten. Caceresen dago eta 39 urte ditu gaur egun.



Iñaki Jaiok 37 urte dauka eta Huescako gartzelan dago. 25 urte zituen atxilotu zutenean.

600 preso politiko inguru dago gaur egun Euskal Herrian. Duela 8 urte inguru Espainiako Gobernuak presoena sakabanaketari ekin zion eta gaur egun guztiak Estatuko espetxe ezberdinetan daude. Hiru dira egun gartzelan aurkitzen diren elgoibartarrak: Iñaki jaiok, Mikel Alberdi eta Iñazio Iriondo. 11 urte t'erdidaramate askatasunik gabe eta batean eta bestean ibili eta gero, momentu honetan Huescan, Cordoban eta Caceresen daude. Eta gatatzeko badira pertsona batzuk bereziki sofritzen dutenak: senideak. Hauen sentipenak, bizikizunak, esperantzak, usteak,... jaso nahi izan ditugu, ez besterik.

Hirurak egun berean atxilotu zituzten, 1984ko azaroaren 27an. Senitartekoez ondo baino hobeto gogoratzen dute atxiloketa eguna. Edurne Bustindui Iñaki Jaioren ama da, “eguardixan etorri zian bost polizia eta ia Iñaki etxian zauan galdetu zien. Terrazan zauala esan eta hara sartu eta detenidu ein bihar zebela esan ziu. Diskutitzen hasi zian eta Iñaki albokuan etxera pasau zan terrazatik eta tubexiari helduta bajatzen hasi zan. Poliziak atzetik zi-txun pistoliakin. Polizia 4. pisutik tiroka hasi jakon Iñakiri, orduan tubexia soltau eta jausi ein zan. Hala ere, poliziak tiroka segitxu zeben, neri petarduak ziala esan zien. Oso gogorra izan zan”. Arrate Juaristik ere oso ondo gogoratzen du bere senararen, Mikel Alberdiren atxilo-

keta, “goizian beti bezela lanera jun zan eta 8ak aldera bi polizia etorri zian etxera berataz galdezka. Lanian zauala esan niuen eta eurak etxian geratu zian, deixak eitxen. Halako batean Udaletxetik deitxu zeben esaten Mikel Zumaiian zauala detenitxuta”.

Iñazio Iriondo Jesus Mari anaiarekin batera atxilotu zuten”baina ni egun t'erdibakarrik egon nitzan Bilboko komisaldegixan. Eibarrera ekarri zienian anaixa laga zien ikusten eta ez dot sekula ahaztuko zela ikusi naban. Oso geizki zauan, torturatu egin zuten, jota zauan eta sila baten eserita kriston botiak ematen zitxun. Esan zian berak eraman zaban borrokan konfundiduta egon zala... Dana jasotako egurratik”.

Bisitak eta Vis a Vis-ak

11 urte t'erdidaramate Iñakik, Mikelek eta Iñaziok

espetxean. Jesus Marik adierazi duenez, “ohitzerik ez dao baina nola edo hala egoera hori eraman egin bihar dozu, bisitak eitxera jun hamabostian behin edo...”. Edurnek astean behin ikusi ahal du Iñaki, “Huescan dago eta nahiko gertu geratzen jaku. Etxekuak edo lagunak, beti eukitzen dau bisitaren bat”. Arrateren kasua bestelakoa da, “Cordoban dago Mikel eta ez da hain erreza. Hilian behin juten naiz”.

Espetxe bakoitzak bere arauak ditu eta horien arabera, toki batean bisitak eta “visa vis” deitzen direnak daude, beste batzuetan, aldiz, ez bata eta ez bestea. Esaterako, Arrate bost urtez egon zen bere senarra ikutu ere egin gabe. Gaur egun, bai Cordoban, bai Huescan eta bai Caceresen ere biak ametitzen dituzte. Bisitara joaten direnean, preso dagoena ikusi bai

12 urte gartzelan

baina hura besarkatzerik edo ikusterik ez dute posible izaten, “barrote batzuen atzian kristala dao eta berba zulo batzuen bitxartetik ein bihar dozu”, kontatu digu Eurnek. Vis a vis-ak hilean behin izaten dira. Ordu t’erdi edo bi orduko iraupena izaten dute normalean, “orduak bai egoten zerala zu presuakin, beste inor egon gabe bertan. Oso momentu intentsoak izaten dira”, adierazi du Arratek, nahiz eta intentsitate hori oso gogorra egin ziegatik atera eta funtzionarioak atea giltzez ixten duela ikustean.

Aldaketak

Espetxean egon arren, kanpoko egoeraren berri badute, Jesus Marik esan bezala, “jende asko juten da hemendik eta badake gauzen berri. Telebisiua ere badake, irratixa...”. Baina badira zenbait gauza asimilatu ezin dutenak, “diruaren zentzua erabat galdu dabe. Kafé konpletuak zenbat balio daban esaterakuan adarra jotzen ari zerala pentsatzen dabe!”. Animo aldetik behintzat oso



Jesus Mari Iriondoki, Eurne Bustindui eta Arrate Iuaristik anaia, semea eta senarra dute espetxean. Berandu baino lehen etxean izango dituzten itzaropena dute.

ondo omen daude, Eurnek esan digunez, “oso alegre daude, juten geranian behintzat beti barrez”.

Jesus Marik nabari du aldaketarik anaiarengan, “sentsibilidade gehixo daka. Askoz gehixo baloratzen ditxu jendian arteko harremanak, asko konturatzen da gauza txikixekin, erropen koloriekin... Izan ere, 11 urtian zerua bakarrik ikusi dabe patixotik”.

Kontrolak

Sakabanaketaren ondorioz presoak Estatuko gartzelatan zehar ibili dituzte eta horrek, gastu handia dakar bisitara joaten diren senideentzat. Arratek azaldu due-

nez, “Tenerifera eraman zebenia pentsau naban bisitara jutia amaitxu zala nerezat. Gero, azkenian ahal naban guztietan juten nitzan baina horrek suposatzen zaban lanian aste bat galtzia eta biajiaz gain hotela ere pagatzia”. Preso sozialen senideek bisitara joateko laguntzak jasotzen badituzte ere, preso politikoez ez dute horrelakorik. Horrez gain, kilometro asko eta asko egin behar izaten dituzte, “istripuak eta kontrolak askotan tokatzen dia”. Arratek gogoran du oraindik iazko azaroan Cordobara zihoala izan zuten kontrola. “Ertzainak zian. Furgonetak alde guztietatik, autobuseko kristalak apurtu

zitxuen... Goizeko lak arte egon ginan han eta gero, buelta etxera. Bisita galdu genun, bi pertsona atxilotuta... Sekula ez dot hainbeste bildur pasau!”.

Justizia?

Ia 12 urte daramate gartzelan eta ez dakite zenbat geratzen zaien. “Espetxian dauden bitxartian eitxen daben lanagatik redimitxu eitxen da kondenia baina, hain da relatibua hori!”, esan du Arratek. Justizian ez dute sinesten, “hitx politxa da baina gaur egun ez da praktikan ematen”, azaldu digu Jesus Marik.

Askatasunarekin ametsetan

Askotan egin izan dute amets Iñaki, Mikel eta Iñazio aske lagatzen dituzteneko momentuarekin. Eurnek, “bila jun eta kanpua daua”. Arratek, berriz, “berakin kalia nauala askotan ein dot ametsetan baina etxian sekula ere ez nao berakin. Hainbeste urte eta gero etxian jabe ein naizelako izango da!”. Jesus Mariren kasuan, “anaixari eta bixori asko gustatzen jaku kazia eta askotan ein dot ametsetan bixok gaudela mendixan txakurrekin”.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak

Euskal preso politikoen sakabanaketa jarri zen martxan orain 8 urte inguru. Iñaki Odriozola eta Agurtzane Bilbatuaren hitzetan, helburua “presoen kolektiboa desegitea da, baina kolektiboa ez da apurtu”. Presoak Euskal Herriratzeari buruz diotenez, “nahiko absurdoa da dispersioa antolatu zutenak orain giza eskubideei buruz hitzegiten hastea”. Gestoren ustez, “azken finean beste taktika bat izan daiteke, batzuk ekarriko dituzte, beste batzuk ez, eta azkenean senideak ere

nahastu egingo dituzte... Gainera, ekarri bai, baina nola ekarriko dituzte? Isolatuta egongo al dira?”. Legearen arabera presoek etxetik ahalik eta gertuen egon behar dute eta orain arte ez da bete. Gestorek sakabanaketarekin amaitu nahi dute, “legeak dioena bete dezatela da gure apostua epe motzera”. Gestoren helburua “amnistia lortzea da, beti ere proiektu politiko baten barruan ulertuta”. Hori gertatu bitartean Gestorek egoera salatu eta presoek beren laguntza eskainiko die.

Preso politikoaren hurbilketa Euskadira

Kaixo, irakurle:

Lau hitz idazteko aukera dudanez, zuregana ekarri nahi nuen gaia ESPETXEETAKOA da bereziki. Seguraski jakingo duzunez, ia 550 euskal preso politiko daude sakabanaturik Estatu espainoleko 90 espetxeetan zehar eta Estatu frantseseko beste 15 gartzelatan. Ahaztu gabe bestalde, Mexiko, Belgika eta Portugalera espetxeetan preso dauden hiru euskal hiritarrak.

Dispertsio neurri politiko hau 1989an areagotu egin zen, erabat sakabanatuz gure senide preso guztiak. Baina esan behar dugu ez zela hau beraien eta gure aurka hartzen zuten lehenengo neurria; historia piska bat eginez, 1978-81 bitartean presoak Euskal Herriko espetxeetatik atera eta Soria eta Carabancheleko espetxeetara eramane zituzten. Ondoren 1981eko ekainaren 22an 119 preso Puerto de Sta. Mariara trasladatu zituzten. Geroago goi mailako seguritate neurriko espetxeetara: Alcalá Meco, Herrera de La Mancha eta Carabanchelera. Eta 1987ko urtarrilaren 23an Herreratik atera zituzten, Ocaña, Huesca eta Zaragozako espetxeetara trasladatuz. Neurri ezberdin hauek guztiak gertaera eta

aldaketa politiko ezberdinen ondorioz gertatzen dira beti.

1989an urruntasun neurria nonbait nahikoa ez zela eta (Ceuta: 2.260 km., Puerto: 2.100 km., Salto Del Negro: 4.000 km., Tenerife: 4.000 km...) tratua berezi bat ematea erabaki zuten gaur egundaino, hau da: ISOLAMENDUA: 22 ordu zelda batean bakarrik; JIPOIAK: 167 jipoi (1993an 100 jipoi eman zirelarik, kartzelero eta guardia zibilen eskutik), etengabeko TRASLADOAK: zelda batetik bestera, modulu batetik bestera, espetxe batetik bestera (azken kasu honetan lehenengo urtean 600 traslado egin ziren), bisitak murriztea, KOMUNIKAZIO interbentzioa, EUSKARA erabiltzearen oztopoak eta debekuak, IKASKE-

TAK egiteko oztopo eta debekuak, GAIXOTASUNEN areagotzeak... (gogoratu jadanik 10 senide preso hil direla kartzelatan)... Ikusten duzun bezala "tratu" berezi hau gaineratu behar da urruntasun sakabanaketa politikaz mintzatzen garenean. Ezin dugu ahaztu 120 preso daudela, hiru laurdenak beteak dituzten arren, espetxean jarraitzen dutenak eta baita ere gaixotasun sendaezinak dituzten 3 preso daudela 60. artikulua aplikatu ez zaienak: INAXIO MENDIBURU, FRAN FRANCO eta XABIER ALKAIN.

Azkenaldian "hurbilketa" dugu gai nagusia komunikabide eta politikarien ahotik: selektiboa izango dela, Euskal Herriko 300 km. tara ekarriko dituztela, presoaren senideen portaera kontuan hartuko dela horretarako... Gure SENIDEEN nahia aski ezaguna da, JUSTIZIAN eta LEGEAN oinarritzen den eskakizuna da. Ez dugu nahi erdibiderik, engainu eta sufri-mendu gehiagorik, EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIAN egon behar dute beraien-gure eskubide guztiak bermatuak izan daitezen.

Zilegi diren eskakizun hauen lorpenean zu ere behar zaitugu.
GERO ARTE



ANE BERISTAIN



ESKORIATZAKO
MAGISTERITZA ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1996-97 ikasturterako
aurreinskripzio-epena zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA - 20540 ESKORIATZA
☎ (943) 71 41 57



Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

Zer deritzozu presoak Euskal Herriratzeari?



GARBIÑE ARANZETA
34 urte, edergintza

Nik usten dot hurreratzia ondo dauala, aurrerapauso bat da. Argi dao inkomunikaziuakin ez dala ezer lortzen. Oin, hain da gaitza jakitzia zein dan soluziua!



XABIER GOROSTIZA
56 urte, pelukeroa

Bai, oso ondo. Ahal dan eta bizkorren Euskal Herrira ekarri eta hemen bertan ere ahalik eta onduen egon daitzezela, zenbat eta alkartuo orduan eta hobe.



FRANCISCO COTRINA
52 urte, pintorea

Ez dut gehiegi ulertzen gai honi buruz baina hemen hobeto egongo liratekeela uste dut, zenbat eta gertuago hobeto. Dena dela, guztiak gartzela batean egoitea... oso zaila da.



KONTXI URAIN
33 urte, taxista

Legiak esaten duna da, ez? presuak etxetik gertu egon bihar diala. 10 urtian ilegalidadian egon eta gero holako gauzak entzutia txistia da. Lortu bihar dana da presuak etxera ekartzia.



ROBERTO OTEO
26 urte, montadorea

Euskal Herrira ekartzea ondo egongo litzateke. Gartzelan egon behar badute ere, behintzat familiarengandik gertu egon daitezela. Inkomunikatuak edukitzea oso fuertea da.



MAITE BARANDIARAN
25 urte, idazkaria

Bai, nik usten dot euren eskubidia dala. Legiak hori esaten dau eta azken finian familixiak ere askoz erretzo eukiko zaban presuak bisitatzera juteko.

MINIXETA

Taberna

ORDUTEGI BERRIA
Asteaz zehar 11,30 - 24,00
Eguerdian zabalik
Igande arratsaldetan zabalik



☎ 74 22 60

ZATOZ!

TERRAZA PAREGABEA - PINTXO eta BOKATAK - LAGUNARTEKO GIROA

■ San Juanak Altzolan

Altzolatarrek San Juan jaiak hasiko dituzte hilaren 15etik aurrera. Arratsaldean mus txapelketa izango da eta igandean, hilak 16, Ondarroako Txirrindulari Itzulia, sardina jana, Duo Plaentxi eta Combi taldeen saioa. Haez gain, hilaren 21ean, 22an, 23an, 24an eta 25ean ekitaldirik inportanteenak burutuko dira: piragua erakustaldia ibaian, herri kirolak, San Juan zuhaitza jartzea, zezenak, txokolate jana etab.

■ Mekanografia eta testu tratamendu ikastaroak

Elgoibarko Herri Institutuak ikasleei zuzenduriko bi ikastaro antolatu ditu. Asmoa ordenagailuan azkarrago idatzi ahal izatea da apunteak hobeto eta txukunago edukitzeko, etab. Mekanografia audiobisual ikastaroa ekainaren 24tik uztailaren 12ra bitartean izango da bi ordutegi hauetan: goizeko 9etatik 11ak arte edo 11etatik 13era bitartean. Beste ikastaroa word testu tratamenduari buruzkoa izango da. Bietan ordutegia, epea bai eta prezioa ere, (4.000 pta.) berdinak dira. Izena emateko 74 44 80 ra deitu.

■ Gurasoen Eguna ospatuko dute Pilarren

Pilar ikastetxeok Gurasoen Eguna ospatuko dute larunbatean, hilak 15. Ikasleak euren aldetik, jai giroan murgilduta ibili dira aste osoan zehar. Esku pilota partiduak jokatu dituzte egunero eta gaur, ostirala, futbito txapelketa jokatu dute 7. mailako ikasleek irakasle eta entrenatzaileen aurka. Bihar., larunbata, goizeko 11etan hasiko dira ospakizunak ikasleentako jokoekin. 12,30etan gozogintzan zein abilak diren erakutsiko dute eta 2etan bazkaria izango da. Arratsaldean sariak banatuko dira, eta bingoa, karoa, tonbola eta jokoak ere izango dira. Jai gauerarte luzatuko da. Afaria 20,30etan eta berbena ondoren. Bazkarirako eta afarirako txartelak egunean bertan eskura daitezke.



Dantza Eskolako ikasleek ikasturte amaierako azken saioa aurkeztu zuten joan den zapatuan. Plaza Handian burutu behar zen ikuskizuna, azkenean Kiroldegian egin behar izan zuten, eguraldiak euri itxura azaldu baitzuen egun osoan zehar. Dantza Eskolako ikasleek hiru saio burutu dituzte hiru astetan: "Ikasleak", "Lamiak" eta argazkikoa, euskal dantza saioa.



Herri Eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek Goierri aldera hiru egunetako egonaldia egin zuten maiatzaren azken egunetan ikasturte amaierako irteeran. Lehendabizi Larraitzen egin zuten parada. Herri lasai honetako aterpetxera bisita egin ondoren, herriko zoo txikia eta interesgarria ezagutzeko aukera izan zuten. Bigarren egunean Zerainen izan ziren. Jai eta joko artean eguna igaro ondoren, biharamunean etxerako buelta egin zuten.

■ AEK eta IKaren manifarako autobusa

Nafarroako AEK-k eta IKAK, manifestazioa antolatu dute Iruñean larunbaterako, hilak 15, "Nafarroako gobernua euskararen kontra, helduok tinko euskararen alde" lemapean. Elgoibarko AEK-k ekintza hori bultzatzeko, autobusa antolatu du. Sigmako zubitik arratsaldeko 3,45etan aterako da. Izena emateko Oiz-Mendira edo AEKra zuzendu.

■ Udalaren dirulaguntzak barnetegietara joateko

Euskara sakontzeko asmotan barnetegietara joan nahi duten euskara ikasleei zuzendutako dirulaguntzak emango ditu aurtien ere Udalak. Egonaldiaren gastu osoaren %40a, hau da, 30.000 pta. gehienez, ordainduko die Udalak bai ikasle bai langabetuei. Berri gehiago 74 43 66ra deituz.

Nahaste-Borrastearen 12. edizioa izango da datorren ostiralekoa

Datorren ostiralean, hilak 21, udan sartzea-rekin bat, Kimetz elkarteak antolatzen duen Nahaste-Borraste lasterketa herrikoia-ren 12. edizioa burutuko da. Urtero bezala, hiru lasterketa ezberdinek osatuko dute froga:



lehenengo bizikletaz 7,2 km, zakuarekin km erdi ondoren, mutilek 25 kiloko zakuarekin eta neskek 10 kilokoarekin eta azkenik, saltaka 1,4 km. Aurten bi maila bakarrik egongo dira. Arratsaldeko 7etan Kimetz elkartetik 10 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoen lasterketa hasiko da. Hauek 4,8 km-ko distantzia bete beharko dute bizikletaren gainean, kilometro erdi 10 kiloko zakuarekin mutilek eta 5ekoarekin neskek eta kilometro bat korri-

ka. Bigarren lasterketan 14 urtetik gorako guztiek har dezakete parte. Arratsaldeko 7,30etan Plaza Handitik aterako dira txirrindularitza lasterketari ekiteko. Partehartzaile guztiek aseguru edukiko dute eta kaskoa derrigorrezkoa izango da. 14 sari banatuko dira eta amaieran afaria izango da Kimetz elkartean. Kimetz elkartean edo egunean bertan eman daiteke izena eta haurrek ikastetxeetan ere egin ahal izango dute.



Txankakua Merkatari Elkarteak antolatuta, Egur Arte Tailerren egindako hiru koadroren zozketaren sari-banaketa ekitaldia izan zen astearte iluntzean. Hiru artelanak Juanita Arrietak margotutakoak dira. Sariak banatzen izan ziren Ana Santolaya Udalaren izenean, Juanita Arrieta Egurreko kide bezala eta Juan Luis Astigarraga Txankakua ordezkatzan. Sarituak koadroak eusten ageri zaizkigunak dira: ezkerretik hasita, M. Jesus Sahagun, Pepita Goenaga eta M. Antonia Gabilondo.

Sanmigeldarren eguna ospatuko da igandean

Sanmigeldarrek auzotarren eguna ospatuko dute igandean, hilak 16. Aurten auzoko eskolako irakasle izandako guztiei omenaldia egingo zaie. Sanmigeldarren eguneko ekitaldiak mezarekin hasiko dira auzoko elizan goizeko 11,30etan. Eguerdiko 12,30etan San Migeleko III. Banakako Esku Pilota Txapelketaren azken partiduak jokatuko dira. Partiduen ostean, auzotarren bazkaria egongo da eta bazkalostean Pello Arrieta historialari elgoibartarrak San Migeleko eskolari buruzko hitzaldi laburra eskainiko du. Ondoren omenaldi ekitaldiaren txanda izango da. Antonia Ansola, Antonia Gurrutxaga eta Jesusa Garaialde maistra izandakoak omenduko dituzte auzotarrek. Arratsaldea jai giroan pasatzeko Zabaleta eta Imanol trikitalariekin erromeria izango da. Batzorde antolatzaileak ikasle ohiak parte hartzera animatu nahi ditu.

Gurasoen Eguna Ikastolan

Larunbatean, ekainak 15, Gurasoen Eguna izango da Ikastolan. Aipatu eguna ikasturte amaiera ospatzeko eta eskolaz kanpoko jardueri bukara emateko antolatzen da urtero. Guraso eta ikasleak goizeko 10etan elkartu eta Kilometroak 96ko zirkuituaren aurkezpenaren ostean bira emango dute eta ondoren jolasak izango dira gurasoentzat. Bitartean, Haur Hezkuntzako umeentzat jolasak izango dira. 2ak aldera bazkaria egongo da frontoian eta 3etatik aurrera, kirol aipamenak, musika saioak eta bertsoak.

Igeriketa jaialdia

Zapatuan, hilak 15, OHOKo haurrentzako jaialdia izango da Kiroldegiko igerilekuan arratsaldeko 4,30etatik 5,30ak arte. 3. mailatik 8.era bitartekoek parte hartu ahal izango dute. Izen-ematea Kiroldegian arratsaldeko 4etatik aurrera.

Iñaki Saez:

"Mikel Herzog-en partez sartu nitzan Udaberrin"

39 urte ditu. Iñaki Saez elgoibartarra Udaberri musika taldeko abeslaria da duela 14 urtetik. Berbenaz berbena ibiltzeari utzi eta gaur egun ezkontzetara mugatzen dira.

Saeztarrak musikari lotutako familia dira. Iñakik berak aitortu digunez, etxean gauzarik normalena abestea zen. Eta berak ere, nola ez, abestu egiten zuen.

- Aspaldi hasi zineten Saez anaiak kantuan.

- Bai. Aitxak sartu zigun afiziu eta beti ibili izan gera kantatzen. Etxian hasi eta gero Aubixara juteko deitzen ziguten, San Lorentzora... Batera eta bestera baina beti afizionatuak bezela.

- 15 urte daramatzazu Udaberrin.


- Bai, kasualitatez izan zan. Udaberri aspalditik sortuta zauan eta oin dala 14 urte edo, lagun batzuk esan zien ia sartzetik nahi naban. Mikel Herzog abeslarixa Udaberrin hasi zan eta harek laga zabanian sartu ginan ni eta anaixa.

- Berbenaz berbena toki askotan ibilitakoak zarete.

- Bai, Euskal Herri osuan bai plazatan bai eta frontoietan ere. Araba aldiari oso jai politxak izaten dia ze han jaixa plazan eitzen da eta jotzera juten ginan guztietan demaseko anbientia egoten zan. Gipuzkuan, Zaldibia herri berezixa da gauza berdinatik.

- Jendea dantzan ikustea al da saririk onena?

- Bai, zenbat eta jende gehixo egon dantzan orduan eta gustoro



"Jendia dantzan ikustia da guretzat saririk onena"

zaude zu ere jotzen. Oso desberdina da inor ere ez badao entzuten edo dantzarako asmorik ikusten ez badozu.

- Halere, berbenak utzi egin zenituzten.

- Bai. Berbenak azkenian gogorak eitzen dia. Igual zapatu batian arratsaldeko 4etan urtetzen zera eta goizeko 10ak arte ez zera bueltatzen. Gaztetan errez aguantatzen dozu baina behin ezkondu eta umiak jaiotzen hasten dia-

nian, ezin dozu ritmua mantendu. Ezkontzak lasaixauak dia eta horregatik jarraitzen dou.

- Aspaldian lan asko izango duzue, ez?

- Egixa da jende asko ari dala ezkontzen baina aurrean piskat bajau ein dala usten dot eta jatetxietan gauza berdina komentatzen dabe.

- Tangoak, salsa...

- Danetik jo bihar da ezkontzetan. Kontuan izan bihar da edade guztietako

jendia juten dala eta danen gustuko abestixak kantau bihar ditzuzula. Gainera, normalian ezkontzetan jendiari danetik gustatzen jako dantza eixia.

- Abeslari ezezik animatzaile ere izan beharko duzu, ez?

- Honbre, beti ein bihozu berba jendiakin, nobixuekin sartu piskat... Gero inbitauak etortzen dia kantatzia nahi dabela... Dana toreau bihar dozu.

- Ingelesez ere abesten duzu.

- Bai, edozein hizkuntzatan, nahiz eta jakin ez. Letria ondo ikasi, abestixa askotan entzun eta... urtetzen dan moduan.

- Urte asko dira. Ilusioa mantentzen al da?

- Bai. Nerbixuak pasau eitzen dia baina ilusioa beti geratzen da ze egun bakoitza desberdina da eta zu ere ez zaude beti berdin. Guk jarraitzen badou gustatzen jakulako da, oso ondo pasatzen dogulako.

- Diskoa noizko?

- Komentau izan dou maketaren bat edo grabatzia, guretzat besterik ez bada ere. Ondiok ez dou ezer ein baina igual aurreago...

Txiki BARRREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 24. GEHIGARRIA



kastolako haur eskolan izan gara aste honetan. Lau urteko haurrak jolasorduan zeuden gu iritsi ginenean. Txikienak, ordea, bi urtekoak, txintxo-txintxo irakasleen hitzak entzun eta argazkia atera behar geniela entzun zutenean, ondoko gelara joan eta bertan zeuden gauzeekin jolasteari ekin zioten. Batak bestearen aurrean egon nahi zuten, batzuk izkutatu ere egiten ziren, kamerari kasurik egin gabe aritu ziren asko eta noiz edo noiz flashak jotzen zuenean, egiten zeudena utzi eta zuzen-zuzen begira geratzen ziren. Emaizta? Hemen dagoena. Datorren hilean oporretan izango dira guztiak. Orduan bai izango dutela astia nahi beste jolas egiteko.

Txistea

- Andrea, esango al diozu zeure semeari ni ez imitatzeko?
- Semearengana zuzendu eta esaten dio amak:
- Aitor! Zenbat aldiz esan behar dizut ez egiteko leloarena?



Jakitunen eskutik

Hurrek ba al dakite jolasten?

Galdera honi erantzuteko eskatu didatenean nire lehenengo gogoeta ondokoa izan da: hau da konpromezua, nahiko zaila da galdera horri erantzutea.

Bat batean eta hotzean besterik gabe ezetz erantzungo banu, ez nintzen bat ere justua izango. Ezetzaren arrazoia nire haurtzaroko oroimenetan oinarritzen da. Gogoan ditut oraindik kalean txorro, morro, piko..., kalabin-kalabera, kaniketan, gometan edo soka saltoan jolasten aritzen ginen garaiak. Orduetik hona gauzak asko aldatu dira. Euri asko egin du orduetik, esaten den bezala. Gizartean izan den bilakaera hurrengan ikus daiteke beste inon baino hobeto. Ordenadoreak direla, bideo jolasak... gaur egun hurrek denetik dute. Ez noa esatera hauek guztiak txarrak direnik, izan ere, guztiontzat ezaguna baita eragin positiboa ere badutela. Halere, nik beste alde arriskutsuago bat ere ikusten dut: haurra indibidualki jolastera ohitzen da. Bakarrik egotea atsegin dute gaur egungo hurrek jolasak oso entretenigarriak baitira, beste inoren laguntzarik gabe jolasean gustura aritzeko modukoak. Ondorioz,



MARIJE IRANZO
Atxutxiamaikako zuzendaria

taldekako jolasetan parte hartzea kostatu egiten zaie. Haurra poliki-poliki bakartiago bilakatzen da.

Atxutxiamaiak Begirale Taldeak hori lortu nahi du, hurrengan jolasteko grina berpiztu nahi dugu. Badakigu ez dela lan erraza izango, jolas baten aurrean erreakzio ezberdinak egoten baitira: batzuentzat aspergarria izan daiteke, beste batzuk ez dute gogorik izaten... Halere, badago beti parte hartzeko prest dagoenik ere. Motibazioa oso garrantzitsua da, azken finean jolasaren bidez denek pasatzen baitute ondo.

Gure helburua jolasaren filosofia suspertzea da, hurrei jolasten erakutsi nahi diegu.

Zerikusi itzela du egungo gizarte konpetitiboak. Hurrek eskolaz gain beste hainbat ordu sartzen dituzte musika, ingelesa, informatika eta abar lantzen. Hauek guztiak beharrezkoak diren arren, jolasteari dagokion garrantzia eman beharko litzaiokeela uste dut. Eta gaur egun ez zaio ematen.

Beraz, amaitzeko, beharbada goiko galdera aldatu beharko genuke eta beste hau jarri: gaurko hurrek ba al dute jolasteko denborarik?

Ze iritzi daukazu*azterkete*.....i buruz?



Ez zaizkit gustatzen. Ez zait iruditzen beharrezkoak direlarik. Nire ustez eguneroko lana hartu behar da kontuan eta ez egun batean egiten duzuna.

ANE BARRENETXEA. 13 urte



Ez zaizkit gustatzen ze asko ikasi behar da eta gero zero bat ateratzen baduzu... preparatu zaitez!

HARTZ CALVO. 11 urte.



Ondo daudela, horrela gehiago ikasten dugulako ze bestela ez dugu ikasten. Guk asko egiten ditugu.

NEREA RODRIGUEZ. 9 urte



Antonio Gallardo
14 urte

Galde debalde

- 1- Lotarako ba al duzu panpinik?
- 2- Eta maskotarik?
- 3- Gorroto duzun janari bat? Eta gustatzen zaizuna?
- 4- Arraina ala txoria izan nahi zenuke?
- 5- Udako oporrak ez al dira luzeegiak?
- 6- Zer eramango zenuke ilargira?
- 7- Zeri ematen diozu garrantzia?
- 8- Maiteminduta al zaude?
- 9- Zein altzari izan nahi zenuke?
- 10- Nola deitzen dizute etxean?



Olaya Sanchez
7 urte

1. Txakur bat, pelutxea da.
2. Animaliak: arrainak, txoriak eta ehiza txakurrak.
3. Azelgak gorroto ditut eta enpanadak gustatzen zaizkit.
4. Txoria, hegan egitea gustatuko litzaidake.
5. Ez, kurtsoa luzeagoa da.
6. Nire animaliak, denboran bidaiatzeko makina bat eta ondo bizitzeko etxe bat.
7. Osasunari.
8. Ez, eta ez naiz sekula egon.
9. Ohea, beti lo egoteko.
10. Antonio II.a, aita ere Antonio da eta.

1. Bai, musikia dakan osito bat.
2. Ez.
3. Arraina ez eta arroza tomatiakin asko.
4. Txoria, nik etxian bi ditut eta holako bat izatia nahiko naban.
5. Ez.
6. Zapatilak, txandala eta galtzetinak.
7. Lagunekin hitzegitari.
8. Bai eta nobixua dakat, Aaron.
9. Aulkia, eseritzen naizenean ez naizelako jausten.
10. Olaya edo potxola.

Zer da...zigorra?

ENERITZ GONZALEZ 10 urte



Gaizki portatzen zarenean zigorra ipintzen dizute. Zigortuta nagoenean infernuan nagoela sentitzen dut.

JENIFER RIVERO 8 urte



Zigorra da kastigua.

ASIER ASTARLOA 9 urte




Gaiztakeria edo gauza txarra egiten duzunean jartzen dizutena, adibidez, zaplastekoa jo, hilabete osoa telebistarik gabe gelditu...

IÑAKI ANSOLA 12 urte



Gauza bildurgarria da baina ez beti. Eskolan kastigatzen didatenean polita da ze eskolako klaseak galtzen ditut.

MAIDER OÑEDERRA 7 urte



Okerra egiten dugunean zigorra jartzen digu amak.

SANDRA ABEJON urte



Jesusek egiten duena: infernura bidaltzea.

UDALDIAN 96!



Jolasak
Irteerak
Eskulanak
Kirolak
eta
sorpresa pilo bat!!

ESKOLAURREko 1.-2.-3.
mailak

uztailaren 1etik 12ra

GOIZEZ 10,00-12,00

PREZIOA: 2.000 pta.

OHOkO 1.-2. mailak

uztailaren 1etik 12ra

GOIZEZ 9,30-12,30

PREZIOA: 2.000 pta.

OHOkO 3.-4.-5. mailak

uztailaren 8tik 19ra

GOIZEZ 9,30-12,30

PREZIOA: 2.000 pta.

IZENA EMATEKO: Elgoibarko Izarra
K.E.

Ubitarte 4 behea
Tel: 74 16 26

EPEA: Ekainaren 17tik 21era



ANTOLATZAILEA:

Atxuxiamaika Begirale Taldea

LAGUNTZAILEAK:

Elgoibarko Udala - Gipuzkoako Foru Aldundia

Ovidio Campello

Zubia jatetxekoa



● **Ura beharrean, zer ikusi nahi zenuke errekan?**

▶ Ura ikusi nahi nuke baina arrantzarako, garbia eta arrainekin, garai batean zegoen bezala.

● **Bizitza entsalada balitz, zein osagarri botako zenizkioke?** ▶ Lana, solidaritatea eta errespetua.

● **Zein eratako "saltsak" gustatzen zaizkizu?**

▶ Sindikalismoa eta kirola.

● **Harreman hotz bat berotzeko?** ▶ Elkarrizketa.

● **Mariskoa ala arraultzak patatekin?**

▶ Aukeran, mariskoa eta ondoren okela ona.

● **Noren konpainia aukeratuko zenuke afaltzeko?** ▶ Lagunena.

● **Tentazio tentagarri bat?** ▶ Mendingian bizitzea.

● **Zer da pekatua?** ▶ Pekatua ez da existitzen, gauza batzuk ondo daude eta beste batzuk gaizki.

● **Zein egoeratan ez duzu ikusten zure burua?** ▶ Madrilen bizitzen.

● **Diruarekin dena eros daiteke?** ▶ Ez dena, nahiz eta zoritxarrez gauza asko bai, baita zenbait pertsona ere.

● **Burusoil geratuko bazina peluka erabiliko zenuke?**

▶ Ez, ihauterietan bakarrik.

● **Zure erretegia infernua balitz, nor jarriko zenuke parrillan?**

▶ Inolako arrazoirik gabe besteei min egiten dietenak.

● **Zein gaitzizen jarriko zenioke zeure buruari?** ▶ "Bodegas", lehen San Pedroko bodega izan genuen, orain erretegia...

● **Joan al zara inoiz hondartza nudista batera?**

▶ Ez zait tokatu, beno, Saturraranera bai.

● **Aldizkariren bateko harpidedun al zara?**

▶ Bai, BARREN, Gaceta Sindical, Empresarios, zenbait egunkari...

● **Goizean egiten duzun lehen gauza?** ▶ Dutxatu.

● **Eta gauean egiten duzun azkena?** ▶ Dutxatu baita ere.

● **Triste zaudenean zein musikak alaitzen zaitu?**

▶ Momentu guztietan musika berdina entzuten dut, 70ko hamarkadakoa.

● **Definitu zure burua hitz batez.** ▶ Solidarioa.

BEROA

DOINUA:

Proporzio bat

Beroa dugu protagonista erregalatzeko aina Andalusian ohituak daude gure artean ez baina, agian batzuk esango dute hau da giro bikaina, baina egia esan behar da, ez gaitezen engaina, eguzkiaren alde onena kerizpea alajaina.

Bainujantzia ipini eta hondartzak berriz topera egun osoa pasako dugu izerditan goitik behera, egoerari norberak dio hartu beharko tankera batzuk itzala bilatzen dugu freskatzearen aldera, negu partea helduko zaigu ta beroa nahi atzera.



JON PELI URIGUÉN

B
E
R
R
E
T
O
T
A
M

NORFO SL.

La Estrella
ASEGURUAK

- ELKARTEEN ALDAKUNTZA ELKARTZE ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE ETA FISKAL AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)

P. M. Urruzuno, 6. Tel: 74 31 40. Faxa: 74 41 23

ORAIKO

San Francisco 25
E LGOIBAR

ARMUETA
Baserriko haragietan berezia

Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Ur, zabor eta estolderia

1996ko bigarren hiruhilabetekoari dagozkion ur, zabor eta alkantarila zergak ordaintzeko epea hilaren 22an amaituko da. Ordainketa goizeko 11etatik 1era bitartean egin daiteke Udal bulegoetan, larunbatak barne. Epearen barruan ordaintzen ez dutenei %20 gehiago kobratuko zaie. Ordainketa errazteko ordainagiriak helbideratzea gomendatzen du Udalak. Berri gehiago jasotzeko 74 44 14ra deitu.

Bake epaile postua

Elgoibarko Udalerako bake epaile posturako izena emateko epea hilaren 21ean amaituko da. Udal plenoari dagokio bake epailea hautatzea. Baldintza hauek bete behar dira: espainola eta adinez nagusia izatea, Botere Judizialaren Lege Organikoak ezartzen dituen ezintasunen barne ez egotea eta inkompatibilitate auzietan eta funtzio judizialak betetzeko debekuen barne ez egotea, iharduera profesional edo merkantiletan izan ezik.

Auto-garbitzeta zerbitzua jarri du martxan Udalak hiltegi zaharrean

Joan den astetik martxan da autoak garbitzeko Udalak jarri duen zerbitzu berria. Garbiketa lehengo hiltegi zaharrean ondoan kokatzen da, autobus eta kamioiak apartatuta egoten diren tokian hain justu.

Nahi duenak aukera dauka bertara joan eta autoa garbitzeko. Horretarako egokitutako makina batean 10 pta.ko txanpona bota eta 75 segundorako ura eskura daiteke mangera baten bidez. Xaboa norberak jarri behar du eta neutroa behar du izan. Makinak 5, 10, 25, 50, 100 eta 200



10 pta.gatik 75 segundorako ura daukazu garbitzeko.

pta.ko txanponak jasotzen ditu, horren arabera denbora luzeagoz jaso ahal delarik ura.

Zerbitzu hau ahalik eta jende gehienak erabiltzea da asmoa horrela, jendeak autoa kalean garbitzea ekiditeko asmoz.



OSASUNDEGIA

Urkizu pasealekua, 11.

(Orbeako dorrea lehenengo solairua).

Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

1- Ginekologia

2- Alergologia

3- Kardiologia

4- Zirurgia

5- Dermatologia

6- Dietetika eta Nutrizioa

7- Laborategia

8- Barne medizina

9- Ortodontzia

10- Foniatria medikoa

11- Pediatria

12- Psikiatria

13- Radiologia

14- Traumatologia

15- Urologia

Altzolako Andonaegi dorretxea (III)

- Orain arteko guztia irakurrita, andonaegitarren lonjaren mugimenduaz jabe gaitzke. Izan ere, bertara burdinkia, burdina, erre-mintak, errejak, garia, arraina, bale-olioa, artilea eta abar iristen ziren.
- Andonaegi dorretxean zenbatu eta pisatu, kargatu eta deskargatu egiten ziren merkatalgaiak (1580an 196 upel zeuden).
- Era berean, Altzolako ibai portutik Debako itsas porturaino eta handik hona garraiatzeko “galluperoak” edo txanela gidariak kontratazen zituzten.
- Deban “Loja berri” etxean zuten merkatal lotura. Bertan, lehengusina bat Donostatik eta beste tokietatik zekartzaten merkatalgaiez arduratzen zen.
- 1582 urtetik arrera Andonaegik lonjaren gora-beherak eta kontuak eramateko langile bat kontratatu zuen.
- Negozio hauek ondare garrantzitsua metatzeko parada eman zieten andonaegitarrei. Altzolan bertan dorretxea eta lonjaz gain beste etxe bat ere bazuten eta Elgoibarko errebalean, (gaur egungo San Frantzisko kaleko 32. zenbakian, Arriola harategia dagoen tokian) beste dorretxe bat zuten, Andonaegi izenez ezagutua eta errotak zituena. Guztira 19 jabetza zituen Elgoibarren. Ondasun guztiak jaso zituen herentzian XIX. mendean Migel Antonio Murga Andonaegi markinarrak, Bizkaia jaurgoko “Lurraldeko aita” zenak. Andonaegitarrek San Frantzisko komentuan hilobia izan zuten.
- XX. mende hasieran etxe honi “Errementariko” izenez deitzen zitzaion. Bertan, beheko solairuan Elias eta Ezekiel Elorza errementariak fama haundiko aizkorak lantzen omen zituzten. Goiko solairuan bizi ziren.

PELLO ARRIETA



Maria Linares Linares (1912-1994)



- 1912ko abenduaren 3an jaio zen Jaeneko Santo Tomé herrian.
- Sei arreba ziren. Gaztetan eskolako gora-beherak ikasi ondoren, lana garratz egitea tokatu zitzaion arriben artetik bigarrena baitzen.
- Juan Vázquez-ekin ezkondu eta 6 seme-alaba izan zituen.
- 1953an etorri zen familia osoa Elgoibarrera, alaba gazteena hemen jaio zelarik.
- Azoka plazan janari saltokia izan zuen urte askoan.
- Sinesmen handiko emakumea, beti jendeari laguntzeko prest. Emakume zerbitzailea zen.
- Kanpotik etorritakoa bazen ere, oso gogoko zeukan Euskal Herria bai eta San Bartolome jaiak ere.
- Zaletasunik handiena dantza egitea zuen, bai eta musika entzutea ere.
- Denbora askoan Errosario kalean bizi izan zen.
- 1994ko uztailaren 18an hil zen.

JUANITO GOROSTIZA



Ekainaren 11an, 79 urte zituela, hil zen Arrieta dendako MARIA ARRIETA ETXABEren sendiak bihotzez ESKERTZEN DITU JASOTAKO DOLUMINAK, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Era berean, gogoratu ekainaren 17tik 21era bitartean bere aldeko errosarioa eta meza izango dela Parrokian.



MOTZAK

Udako kirol kanpaina martxan dago

Udal Kirol Patronatuak udako kirol kanpainaren beste edizio bati ekin dio. Urtero bezala haurrentzako eta nagusientzako eskaintzak egongo dira, ordutegi eta egutegi ezberdinarekin. Uztailaren 1etik 26ra bitartean izango dira ikastaroak. Haurrentzako eskaintzan honako hauek daude: tenisa, patinaia, eskalada, buzeroa, mountain bike-a, aerobic-a eta igeriketa. Azken honetarako informazioa Kiroldegian jaso daiteke. Helduek tenisa, buzeroa, eskalada, aerobic-a, muskulazioa, kainoi jaitsiera, hidrospeed, kayak, piraguismoa, puenting-a, espeleologia eta igeriketa egiteko aukera izango dute. Izena emateko epea hilaren 24an amaituko da. Horretarako deitu Patronatuaren 74 44 15 zenbakira edo Mintxetako 74 43 15era.

Gipuzkoako txirrindulari kadeteen txapelketa

Zapaturako, hilak 15, Elgoibarko Lagun Taldeak Gipuzkoako txirrindularien Txapelketa antolatu du kadeteen mailan. 60 kilometroko lasterketa da eta ibilbidea honako hau: Elgoibar, Mendaro, Elgoibar, Bergara, Elgoibar, Mendaro eta Mintxeta. Goizeko 10etan aterako dira Plaza Handitik eta 11,40ak aldera izango dute iritsiera Mintxetan, IMH ikastetxe parean, hain zuzen.



Jabier Urresti:


"Mendiko bueltia eta gero Ondarrura jun nitzan bizikletaz"

■ **Mendizale izan aurretik, korrikalari.** - 1983an hasi nitzan karrera popularretan korritzen, 30 urte pasaunitxun. Saltaka eta mendira ere bai, footing-a eitzen naban terreno guztixetan. 18 karrera popular ein ditzut, hiru maratoi-erdikuak. 11 trofeo dakaz eta bastante ondo ibiltzen nitzan. Gero, lau maratoi ere korritxuta ditzut.

■ **Horregatik esplika daiteke 5 ordutan egin izana mendi itzulia.** - Egixa esan ez naukan pentsauta korrika eixia, pausuan jutia zan asmua. Oin dala 3 urte laga naban korrikia zihero, baina mendi bueltia baino 6 egun leheno footing-a eitzen hasi nitzan eta eguna heldu zanian pikia sartu jatan. Karakateraino pausuan ein naban eta handik korrika. Ez nitzan denporia eixera jun baina piskat gehixo ibilitxa denbora gutxi-xauan ein leike.

■ **Kontatu zer egin zenuen itzulia eta gero.** - Goiz ailegau nitzan etxera, hamabixak hogeï pasauta. Jan naban zeoze eta zapatuetan eta domeketan bizikleta bueltia eitzen dotenez, ba hartu bizikletia eta "Vuelta a Ondarroa" ein naban. Ordubete eta 40 minutu ein naban, eta fresko nauan.

■ **Forma fisiko**



aparta duzu. - Urtiekin fondo haundixa hartu det. Nik daukaten gauza ona da pultsaziuak oso bajuak daukatela: 38 pultsazio. Horrek esan nahi du nekau geruo eitzen zerala.

■ **Marka harrigarriak dituzu.** - Mont-Blanc-era refujixotikan hiru ordu t'erdï. Karakate-Hirukurutzeta-Azkarate-Elgoibar: denporarik bajue-na ordubete eta 31 minutu t'erdikua. Vuelta a Ondarroa saltaka: 3 ordu eta 20 minutu eta maratoietan gitxiena 2 ordu eta 42 minutu.

■ **Mendixa lagata duzu belaunagatik.** - Bai, asko gustatzen jatan baina... oin hiru urte laga naban. Urtebete ezer ein be eon nitzan eta bizikletia kin hasi nitzan.

■ **Mendi askotan ibilitakoa izango zara.** - Hala ere, Euskal Herrixan badaoz asko ondiok ezagutzeko dakadazena. Pirinuan ere altuenak einda daukadaz eta Alpietan Mont-Blanc-era bi bider ixo naiz. Mendixan piskat "domingerrua" izan naiz ni, udan ibiltzen diazenetakuak. Autentikuak dia neguan dabizenak.

• Adina: 44 urte
• Domekan egiteko mendi bat: Karakate-Hirukurutzeta; antzinako dolmenak daoz
• Mendirako konpainiarik? Gehixenetan bakarrik

GOXO

Ortutegi, armak, elkarri, edozein etxean egindako barkiloak, erroskilak,...

MERIENDAK GUREKIN!

TEXTIL HOGAR LAGUNAK

Jantzi zure etxea diseinu berriekin.

DEITU KONPROMEZURIK GABE!

Olaso kalea 54 Tel: 74 44 57 ELGOIBAR

Bolo Txapelketa lehen aldiz Finalista Egunean

Igandean, hilak 16, Finalista eguna ospatuko du Morkaiko Mendizale Elkartek San Pedron. Urtero bezala, mendi irteerak emango die hasiera eguneko ospakizunei. Nahi duten herritar guztiak goizeko 8etan Plazatik irtenda, Morkaiko mendira igotzeko aukera izango dute.



60tik gora lagunek inguratu zuen joan den igandean Elgoibar mendiz.

Handik Hiru-Iturrira abiatuko dira Karakate elkartekoek prestatutako hamarretakoarekin indarrak berreskuratu eta San Pedrorra bidea hartzeko. San Pedron meza entzun ondoren Haritz Dantza Taldekoek aureskua dantzatuko dute. Ondoren domina banaketa hasiko da. Aurten 100tik gora lagunek jasoko dute domina, 10 mendi, 15, 20 eta 100 mendi eta 20.000 metro eta 40.000 metro egin izanagatik. 100 mendirekin eta 40.000 metroekin Juan Carlos Etxeberria, Alberto González eta Mari Asun Uriarte daude eta 100 mendirekin Ignacio Vidal, Izaskun Urbietta eta Ainara Ladrón.

Goiz parteko ekintzak errenditu bezain laister, lagun arteko bazkaria izango da San Pedroko jatetxean: 2.000 pta.ren truke paella, erredondoa eta postrea.

Berrikuntzarik ere izango da aurtengo Finalista egunean. Bazka-

lostean Morkaiko Bolo Txapelketa-ren lehen edizioa jokatuko da bertako bolatokian. Honez gain, Mausitxa txarangak bai eta trikitilariak ere bazkalosteko tartea alaituko dute. Haurrek, berriz, arratsaldea jolasean pasatzeko aukera izango dute.

la ordubete gutxiago

60 bat lagun elkartu ziren joan den igandean Elgoibar mendiz inguratzeko asmoz. Ibilbidea osatzen duten 40 bat kilometroetan eguraldi ezin hobea izan zuten. Itzulia amaitu zuen lehena Javier Urresti elgoibartarra izan zen eta egin zuen denbora, 5 ordu eta minutu bat. Partehartzaile gehienek 7 ordutik gora behar izan zuten ibilbidea amaitzeko. Itzuliaren ostean Morkaikokoek bazkaria eman zieten mendizale guztiari. Hamarretakoa prestatzen bai mendi itzulian bai finalista egunean, Jaime Martínez eta Karakate elkarteko Iñaki Berristain eta Valentín Txurruka izan ziren.

MOTZAK

Saskibaloitaldearen zozketa

Saskibaloitaldeak joan den asteartean egin zuen zozketan 100. zenbakiak eskuratu zuen lehen saria. Zenbaki hori duenak, bi pertsonarentzat 15.000 pta.ko afaria irabazi du Gabi jatetxean. Zenbaki sarituaren jabeak gaurtik, hilak 14, hasita hilabeteko epea du saria jasotzeko eta horretarako 742853 telefonora deitu edo saskibaloitaldeko edozeini galdetu behar dio. Inor agertuko ez balitz, ordezkotzenbakiak 147a da.

Igeriketa ikastaroak

Uztaileko igeriketa ikastaroetarako izena eman daiteke dagoeneko. Haur nahiz nagusien taldeak egongo dira goizez eta arratsalde; oinarrizko maila bai eta prefekzionamendua ere. Honez gain, hilaren 17tik aurrera bazkide txartelak %20 merkeago izango dira. Izena emateko 74 13 61era deitu.

Eskolarteko jokoetan falta ziren aurreko zenbakian:



AZKUE

Ikas-Laino izeneko neska talde honek eskolarteko jokoetan benjaminetan parte hartu zuen taldeka egiten diren hiru kiroletan: saskibaloia, eskubaloia eta areto futbola. Mintxetako sari banaketa ekitaldian izan ziren eta gainontzeko guztiak bezala Patronatuaren kamiseta jaso zuten.



Esther Idiákez, judoko Euskadiko txapelduna

Ibai Klubeko Esther Idiákezek Euskadiko Eskolarteko Judo txapelketan parte hartu zuen joan den larunbatean eta 15 urtetik beherakotan Euskadiko txapela lortu zuen 47 kilora arteko mailan. Bikain aritu zen elgoibartarra, azkenerako tendinitis-a sortu zitzaion arren ukalondoan

Legazpiko "Domingo Agirre" Judo Txapelketan Ibaiko elgoibartarren emaitzak ondo-ko hauek izan ziren: urrezko domina Ana Estévez eta Jon Ander Pascualek irabazi zuten 20 kg.ra arteko kategorian, Aitor Gonzálezek 29 kg.ra artekoan eta Aitor Mugerzak 38 kg.ra artekoan. Zilarrezko domina Miren Mugerzak (20 kg.ra arte), Unai Fernándezek (26 kg.ra arte) eta Ekain Jimenezek (29kg.ra arte) irabazi zuten. Brontzezko domina bakarra izan zen, 60 kg.ra arteko kategorian. Datorren astean, Ibaiko 7 judoka Segovian bilduko dira sei egunez Espainiako selekzioarekin datorren denboraldirako entrenamendu zehatzak burutzeko.

Ikastolakoak, Gipuzkoako txapeldun eta txapeldunorde eskubaloian

Ikastolako 6. mailako neskek Gipuzkoako Eskubaloia Txapelketan lehen bi postuak eskuratu zituzte. Ikas-Gorri (txapeldunak) eta Ikas-Beltz (txapeldunordeak) taldeak, eskolakideak izanik, aurrez aurre jokatu behar izan zuten finalean. Ikas-Gorrikoek 8 eta 3 irabazi zieten

Ikas-Beltzekoei. Aipatu behar da ikastetxe bereko bi taldek finala jokatzen duten lehen aldia dela. Bi garaipen hauek gain, besterik ere lortu dute Ikastolakoek: Ikas-Dodotis taldeak hirugarren postua lortu zuen Euskadiko Txapelketan. Zorionak denei.



IKAS-GORRI

Ikas-Gorri osatzen dutenak: ezkerretik hasita Igor Lizarralde (entrenatzailea), Erika Lehr, Amaia Madariaga, Maite Uriarte, Olatz González, Iraia Silva, Maria Bilbatua eta Unai Lizarralde (entrenatzailea). Makurtuta, Iratxe Bastida, Ane Palomino, Amaia Polo, Ainhoa Uriarte, Uxue Alberdi eta Miren Ota.



IKAS-BELTZ

Ikas-Beltz taldekoak: Edurne Juaristi, Estitxu Perea, Nuria Revuelta, Esther Zubiaurre, Loinaz Polo, Amaia Zubiaurre eta Unai Lizarralde (entrenatzailea). Makurtuta, Maitane Oria, Ainara Ladrón, Nerea Aranberri, Nerea Lendinez eta Miren Bereziartua. (Esther Idiákez, M. Jesus Granero, Nerea Etxeberria eta Maite Cornejo falta dira).

ZORIONAK
ASIER ARIZAGAri
 gaur,
 ekainak 14,
 17 urte betetzen
 dituelako.
Gorka eta Nerea

UDAL

EUSKALTEGIAK

GOGORATU!
Uda honetan zugandik hurbil gaituzu
 Matrikula zabalik ekainaren 26ra arte.
 Klaseak goizez · Maila guztiak
 Nafarroa enparantza, 2 · Elgoibar · ☎ 74 27 31



Elgoibarko, Eltziegoko, Ondarroako eta Baltierrako Banden instrumentuen doinuek bete zituzten joan den igandean herriko bazterrak. Aparteko eguraldiak lagunduta, goizean kalejira egin zuten lau bandek auzoetan. Aipatu behar da, estimazio handia izan zuela bandek auzoetan jotzeak, lehen aldia izanik gainera. Eguerdiko 12,30etarako, jende mordoska bildu zen Plazan, elkarren segidan heldu ziren bandei txalo artean harrera eginez. Kilometroetako maskotek, Sei eta Beder-ek, oroigarriak banatu zizkieten Osoro, Morella, Ituarte eta Gallego zuzendariei eta segidan alardea hasi zen. Zortzi pieza ezagun jo zituzten, batuta lanetan zuzendariak txandakatuz.

Egurren erakusketa

Egur Arte Tailerrak margo erakusketa antolatu du Kultur Etxeko erakusgelan. Datorren ostiraletik aurrera Egurren aritzen diren margolarien lanak ikusi ahal izango dira, akuarela, oleoak eta bestelako tekniken bitartez egindako lanak. Erakusketa orduak: arratsaldeko 7etatik 9etara astegunetan eta 12etatik 2etara jaiegunetan.

Oskorriren kantaldia

Gaur, ostirala, hilak 14, Oskorri euskal abestaldeak kantaldi berezia eskainiko du Herriko Antzokian gaueko 22,30etan hasita. Taldeak 25 urte betetzen ditu sortu zenetik eta urte hauetan guztietan sortutako 25 abesti onenetarikoak kantatuko dituzte. Sarrerak Elgoibarko Izarran eskura daitezke oraindik 1.000 pta.tan eta takilan, berriz, 1.300 pta.n.

IBAI Kluba

Zatoz guregana
udarako zure gorputza
prestatzera

AEROBIC

MANTENU GIMNASIA

GIMNASIA ERRITMIKOA

MUSKULAZIOA

Santa Ana, 46 - Tel. 74 07 93- ELGOIBAR

Orain
IBAI Klubean
AIKIDO
JUDO
TAEKWONDO
eta **WING-TSUN**
Arte Martzialak
ikasteko aukera
daukazu.
Gustatzen
bazaizkizu,
ZATOZ!!



EEBBetara abentura bila

Aurten ere IMHko eta Gestio Eskolako ikasle talde batek Amerikara joateko aukera izango du Council eta Camp-America programei esker. Juanjo Martín ILSko ingeles irakaslea da eta bera ere aurretik izan da programa horien kide. Berak bultzatuta ekingo dio talde honek Amerika aldean esperientzia berriak bizitzeari.

Council 18 urtetik gora duten ikasle unibertsitarietara zuzendua dago. Ikasleei IAP 66 izeneko agiria eman eta horri esker Amerikan lau hilabetez lan egiteko aukera dute. 55.000 pta.ren truke jasotzen dute ikasleek agiria eta aseguruua. Gai-nontzeko gastuak, bidaia eta egonaldia, ikasleak ordaindu behar ditu. Halere, lan egiteak guztia ordaintzeko aukera ematen du. Gestio Eskolako 25 ikasle hartuko dute parte Council programan.

Camp America

18 urtetik gorakoentzat izan arren ez dago zertan unibertsitatean egon beharrik. Honako hau kanpamentuetara begirale edo mantenuko langile joateko aukera ezin hobea da. Bi hilabetez kanpamentuan lan egiteagatik 55.000 pta. inguru jasotzen ditu ikasleak baina kontuan izan behar da kasu honetan, Londresetik New Yorkera arteko bidaia eta egonaldia bai eta jatordu guztiak ere ordainduta dituztela. Camp America programan IMHko premoduluko 10 ikasle eman dute izena.



IÑAKI IZAGIRRE

19 urte, Bergarakoa, Gestio Eskolan 2. maila

- **Nola izan zenuen Council-en berri?** - Juan zan urtian klaseko batzuk jasan eta oso ondo pasau zebela eta nahiko erreza zala lana topatzia...
- **Uztailen zoaz, ez?** - bai, berez ekainetik jun zaitxezke baina zela examinak eukiko ditzuten... Uztailian jun eta bi hilabete eingo ditzut.
- **Dena zehaztuta al duzu?** - Ezer ere ez. Madrilen egon ginan lehenguan gauzak konkretatzeko baina momentuz New York-era arteko bidaia eta lehen gaua bakarrik dauzkagu, gero abendura.



MIKEL YARZA

19 urte, Donostiarra, Gestio Eskolan 2. maila

- **Zu Maryland-era zoaz.** - Bai, zona hartara juteko asmuakin nixe baina beste ezer ez dakat konkretatuta.
- **Ingeles maila zer moduz?** - Nahiko flojoa, helburua ikastea da baina egia da hasieran horrek arduratzen nauela gehien.
- **Behin Amerikara joanez gero turismoa ere egingo duzu.** - Bai, nahiko genuke behintzat. Lanarekin nahikoa diru ateratzen bada, dena ordaindu eta inguruak ezagutzeko asmoa daukagu.



ENEKO IRIONDO

20 urte, Plazentziakoa eta Gestio Eskolan 2. maila

- **Zu lehen ere egon izan zara Amerikan.** - Bai, iazko udan baina orduan familixa baten etxian egon nitzan. Oingua desberdina da, askoz hobia.
- **Non izan zinen?** - Floridan. Aurten Iñaki eta bixok ekialdeko kostarantz juteko asmua dakagu.
- **Edozein lan egiteko prest?** - Honbre han hanburgeserixa batian edo topauko dou seguruena.
- **Eta bidaia noren kontura?** - Printzipioz gurasuek pagatzen dabe baina gero suposatzen da han aterako dogunakin dana pagatzeko emango dabala.



Azterketak bukatu ondoren ba al duzu beste zereginik?

LARRAÑAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean

Santa Ana II - ☎ 74 10 11 - ELGOIBAR

Lana

❖ Bi haur zaintzeko NESKA EUSKALDUN BAT behar da uztailetik aurrera.
☎ 74 39 37 Iluntzeko 8,30etatik aurrera deitu.

❖ PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke gauez. Sanitario auxiliari titulua daukat eta bi urteko esperientzia.
☎ 74 25 17 Amaia

❖ UMEAK ZAINDUKO nituzke ekain eta uztailean zehar. ☎ 74 34 99

❖ PERTSONA NAGUSIAK zaindu edo sukaldean pintxe lanak egiteko prest nago.
☎ 74 36 38 Arrate

Salerosketak

❖ KRISTALEZKO KONSOLA bat saltzen dut.
☎ 74 32 51

❖ Motorrean ibiltzeko NARRUZKO TXAMARRA haundi bat saltzen dut.
☎ 74 16 31 (Andoni)

❖ PERIKITO GAZTEAK dauzkat saltzeko.
☎ 74 29 11

❖ ORDENADORE BAT saltzen dut. 486 DX2-66. 8 MB RAM, teklatua eta arratoia. 80.000 pta.
☎ 19 28 53 / (908) 77 53 67
Ramon

Agurrak

❖ Zorionak AITXITXA ENRIKERi hilaren 11n urteak bete zituelako. Asierren, Aitorren eta familia guztiaren partez.

❖ Zorionak ALAZNE, LEIRE, AINARA ETA LEIRE A.ri, ekainean urteak betetzen dituztelako. Kuadrilakoan partez.

❖ Zorionak ESTHER GURRUTXAGARI hilaren 20an urteak beteko dituelako. Zure hiru lagunentz partez, Nerea, Maite eta Eluska. Zorionak!

❖ Zorionak OIHANA APELLANIZ! Zure lagun minentz partez: Nerea, Maite eta Eluska. Askoz gehiago bete ditzazula. Zorionak!

❖ Zorionak GORKA GARAZAIBAL ETA KOLDO SORALUZERI hilaren 14an eta 15ean 13 urte beteko dituztelako. Hiru neskaentz partez. Zorionak eta beste urte asko bete!

❖ Zorionak LUCIARI ekainaren 16an bere 8. urtebetzea izango delako. Bere gurasoen eta ahizparen partez.

❖ Ekainaren 10ean urteak bete zituen LEIRERI zorionak Iokinen partez.

❖ Zorionak eta hiru musu OIHANA APELLANIZ, GORKA GARAZAIBAL eta IOANA ROMARIORI bihotz-bihotzez Iñaki Aranberri, Ainhoa Gonzalez eta Evelinen partez.

❖ Zorionak ekainaren 15ean 18 urte beteko dituen ENARARI bere lagun baten partez. Eta ondo pasa Parisen!

Etxebizitzak

❖ ETXE BAT SALGAI. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea eta komuna. Prezio interesgarria
☎ 74 25 01

❖ PISU BAT alokatzen dut ALCOCEBER- LAS FIARTES hondartza ondoan. Telebista eta laboratorarekin. Uztailean eta irailean.
☎ 74 22 08

❖ Apartamentua alokatzen dut BENIDORM-en. Hondartzako lehen ilaran. Torre-Levante eraikuntza, pistina, parking, laboradora eta telebistarekin.
☎ 76 46 61 / 74 16 57

❖ ETXE BAT SALGAI SANTA ANA kalean. Hiru gela, egongela, bi komun eta sukaldea ditu. Prezio onean.
☎ 76 12 47 / 74 35 86

❖ PISUA SALGAI SAN PEDRON. Hiru logela, sukalde-jangela eta bainua.
☎ 74 25 94

❖ PISU BAT SALGAI. Berritua. UBITARTE 3, 3D.
☎ 74 34 86 (7etatik aurrera)

❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDAn. ☎ 74 15 22

❖ Etxebizitza SALGAI BERNARDO EZENARRO kalean.
☎ 36 17 18 Amaia (gauez)

Garajeak

❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean.
☎ 74 01 77

❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen.
☎ 76 17 95

❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.
☎ 74 31 07

Bestelakoak

❖ NESKA BAT behar dugu Bilbon pisua osatzeko.
☎ 94-476 09 97

❖ DONOSTIAN BIZI ETA EGOIBARRERA KOTXEZ bide hau egiten duen pertsona bat behar dut. Gastuak erdibana ditzakegu. **Richard**.
☎ 74 02 36 astegunak
☎ 42 84 06 astebukaerak

❖ VHS bideoen kopiak egiten ditut bai eta musika jarri ere.
☎ 74 32 94 (6etatik aurrera).
Andres

❖ GONAK JOSTEN ditut neurria eta edozein motatako konponketak egiten. Zaharra ekarri eta berdina egingo dizut.
☎ 74 21 40 Konsuelo

Partikularrak

❖ MARRAZKETA diedriko, tekniko eta linealeko klase partikularrak ematen ditut.
☎ 74 43 98 Iñaki



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Odol Emaileak.....743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Udal Kirol Patronatua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...741008
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki irratia74 34 74

OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

19,30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Aconcagua (Luis M. Arakistain)

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Morkaiko

22,30 OSKORRIREN KANTALDIA

25. urteurrena

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

LARUNBATA

10,00 GURASOEN EGUNA IKASTOLAN

Arratsaldeko 18,00ak arte

10,15 GIPIZKOAKO TXIRRINDULARI KADETEEN TXAPELKETA

Irteera Plazatik

11,40etan Helmuga Mintxetan

11,00 GURASOEN EGUNA PILAR IKASTETXEAN

Gaueko 23,00ak arte

16,30 IGERIKETA JAIALDIA

OHOkoentzat

✓ Kiroldegian

19,30-22,15 ZINEA

“Doce monos”

IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

“Doce monos”

ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Doce monos”

ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Doce monos”

OSTIRALA

19,00 PINTURA ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Egur Arte Tailerra

19,00 NAHASTE BORRASTE

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Kimetz Elkartea

22,15 ZINEA

“El cartero (y Pablo Neruda)”

Sanmigeldarren eguna

HILAK 16, IGANDEA

11,30 Meza

12,30 San Migeleko III.

Banakako Esku Pilota

Txapelketaren finalak

14,30 Auzotarren bazkaria

Ondoren, Pello Arrietaren

hitzaldia eskolari buruz

Segidan, maistra izandakoei

omenaldia

Arratsaldean, erromeria

Zabaleta eta Imanolekin

San Juanak Altzolan

15, LARUNBATA

16,00 Mus txapelketa Zubia jatetxean

16, IGANDEA

10,30 Ondarroako itzulia

17,00 Diapositiba emanaldia

Urubi taldearen eskutik

18,00 Futbolin txapelketa

21, OSTIRALA

16,00 Bingoa Zaharren egoitzan

19,00 Txupinazoa eta sandina jana trikitilariekin

22,30 Duo Plaentxiren jarduna

23,30 Dantzaldia Combi

taldearekin

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
15, larunbata:	Etxeberria	Anduaga
16, igandea:	Etxeberria	Anduaga
17, astelehena:	Etxeberria	Zabaleta
18, asteartea:	Etxeberria	Zabaleta
19, asteazkena:	Etxeberria	Zabaleta
20, osteguna:	Ormazabal	Escala
21, ostirala:	Ormazabal	Escala

OKINDEGIA:

16, igandea: DOÑA MERCEDES

Finalista Eguna San Pedron

HILAK 16, IGANDEA

08,00 Morkaikora irteera Plaza Handitik

10,30 Meza San Pedroko elizan

12,00 Haritz Dantza taldea.

Segidan, domina banaketa

14,30 Bazkaria San Pedroko jatetxean

Arratsaldean, I. Morkaiko Bolo Txapelketa eta haurrentzako jolasak

Jarraian, Mausitxa

txarangarekin kalejira eta trikitilariak

ANTOLATZAILEA: MORKAIKO M.E.


ZineEa

Doce monos

Zuzendaria: Terry Gilliam

Antzezleak: Bruce Willis, Brad Pitt, Madeleine Stowne.

2035. urtea. Gizadiaren %99a desagertu egin da. Piladelphia hiriko zientzilari talde bat etorkizuna eraikitzen ahaleginduko da iraganeko errekursoetatik abiatuz. 1996. urtera bidaia esperimentalak antolatzen dute. Horretarako gartzelan dagoen preso batez baliatuko dira. Presoa 1996an bizi da eta zientzilari baten seme zoro xamarra eta zoroak ikertzen dituen mediku bat ezagutuko ditu.



HIZKUNTZ IKASTARO INTENTSIBOAK Uztailean



Ingelesa - Frantsesa - Alemana

- **DATAK:** Uztailak 1 - Uztailak 24
- **ORDUTEGIA:**
 - ☛ Astelehenetik ostiralera
 - ☛ Goizez
 - ☛ 2 ordu t' erdi egunero
 - ☛ 43 ordu

IRAKASLE NATIBOAK

Baita ingeles
komertziala ere

TALDE TXIKIAK

Mailak eskaeren
arabera

ERRETSEKUA EZAZU LEKUA LEHENBAILEHEN:

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES
San Roke Auzoa, 1 - 20870 ELGOIBAR
Tel: 74 40 40 - Faxe: 74 16 54





KENSINGTON

Pedro Muguruza, 8 - ELGOIBAR - TEL./FAXA: 74 02 36



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE



- ▶ **Cambridge Unibertsitatean titulaturiko irakasleak**
- ▶ **Esperientzia handia enpresetan**
- ▶ **ACEIGeko kide bakarrak Deba behean**
- ▶ **Cambridge azterketen prestakuntza (ES-438 Cambridge azterketako kide antolatzailea)**
- ▶ **Talde txikiak eta homogeneousak**

- ▶ **Hiru hilabetetik behin aurrerakuntza neurtzeko probak**
- ▶ **Ikasketen ziurtagiria**
- ▶ **Enpresei klaseak**
- ▶ **Lau urtetik gorako umeei klase bereziak**
- ▶ **Metodologia ludikoa**



Cambridge University Centre
ES 438ko partaideak

Matrikula zabalik, Zatoz!!

